

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Hezkuntza Departamentuak Berako Ricardo Baroja ikastetxea saritu du irakurzaletasuna bultzatzeagatik

*Catalina de Foix (Zizur Nagusia), San Juan (Irunberri), Sarriguren (Eguesibar) eta Irabia (Iruña) ikastetxeak ere saritu ditu*

Viernes, 06 de mayo de 2011

Hezkuntza Departamentuak Berako Ricardo Baroja ikastetxeari lehenengo saria eman dio irakurzaletasuna bultzatzeagatik duela bost urte hasitako proiektu baten bidez. Proiektuaren helburua ikastetxeko liburutegi nagusia berreskuratzea izan da.

Saria 1.000 euro izan da eta ikastetxeko liburutegirako materiala erosteko erabiliko dute. Teresa Aranaz Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak eman du gaur eguerdian Hezkuntza Departamentuaren klaustroan egin den ekitaldian.

Bigarren saria, 500 eurokoa, Zizur Nagusiko Catalina de Fox ikastetxeek irabazi dute "Una biblioteca muy viva" izeneko proiektuagatik. Horrez gain, ohorezko aipamena eta liburu sorta bat jaso dute Irunberriko San Juan ("Enrédate en la biblioteca"), Eguesibarko Sarriguren eta Iruñeko Irabia ("Tourlector") ikastetxe publikoek.

Sariak hizkuntzaren gaitasuna eta ikastetxeetako liburutegien erabilera sustatzeko Nafarroako ikastetxeek diseinaturiko proiektu, lan edo jarduera pedagogikoei ematen dizkiete. Ikastetxeak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Heziketa Berezia eta Helduen Heziketakoak izaten dira.

Bederatzigarren txapelketa honetan 2009-2010 ikasturteko deialdira aurkeztutako lanak saritu dira.

Sarien banaketarekin batera, Hezkuntza Departamentuaren



Ikastetxe sarituetako ordezkariak



Erakusketako maketa bat

klaustroan, ikasleek literatura-obrak oinarri hartuta egindako maketen erakusketa ireki dute. Iruñeko Plaza de la Cruz institutuko DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek diseinaturiko lanak izan dira eta aurrez irakurri behar izan dituzten kontaketa elementurik esanguratsuenak irudikatun dituzte. Datorren maiatzaren 18ra arte egongo da ikusgai.